

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

119

251/2016 DEKRETUA, abenduaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publiko Administrazio Kontseiluko kide batzuk aldatzen dituena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoaren Estatutu Sozialak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 8.2 artikuluan xedatzen denez, Euskal Autonomia Erki-degoko Administrazioaren ordezkotza egiten duten bost kidek osatzen dute erakunde horretako Administrazio Kontseilua, erakunde publikoko lehendakariak gain. Jaurlaritzak izendatu beharko ditu kide horiek, alegia: bi kide Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren proposamenez, eta gainontzeko hirurak, Osasuneko sailburuaren proposamenez.

Hori jarraituz, erakunde horretako Administrazio Kontseiluko azken kideak kasuan kasuko dekretuen bidez izendatu eta ordezkatu ziren.

Sail bietako zenbait kargutan aldaketak egon direnez, beharrezkoa da berriro ere Administrazio Kontseiluko kide batzuk aldatzea.

Ondorioz, Osasuneko sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2016ko abenduaren 27ko bileran gaia eztabaidatu eta onartu ostean, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoko Administrazio Kontseiluan kide bat kargutik kentzea, eta, bide batez, egindako zerbitzuengatik eskerrak ematea:

Hirugarren kontseilukidea: María Jesús Gemma Múgica Anduaga andrea, titularra, Osasuneko sailburuaren proposamenez.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abenduaren 27an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.